

Imanol Alvarez

IRAKASLEA

Binarismoa eta ziklikotasuna

Nire ingurumarian *binarismo* hitza bolar-bolar dabil azken boladan. Zer ote den binarismoa? Bada, gizonak eta andreak baino ez daudela defendatzeari esaten zaio binarismo. Alegia, homosexualak ala heterosexualak baino ez daudela; edota aktiboak ala pasiboak...

Euskal gay mugimendua sortu zenetik, nire taldean beti aldarrikatu dugu egon badaudela pertsona batzuk —gure kulturen tradizioz gizonetakoari atxiki zaizkion ezaugarri biologiko, psikiko zein portaerazkoak dituzten modu berean— emakumeetakoari omen dagozkion ezaugarriak ere badituztenak; edota grina homosexualak dituzten bezala, grina heterosexualak ere badituztenak... Are gehiago, agian gomendagarriena tartean egotea dela ere aldarrikatu dugu, berezkoagoa, naturalagoa, aberasgarriagoa... delakoan.

Orain binarismoaren kontzeptua —eta berarekin dakarren haren kontrako borroka— zerbait berritatu aurkeztu zaigu, *queer* teoria gaurkotuaren bidez. Gutariko askok, aldiz, duela hogeita hamarren bat urte gauza bera esaten genuen; hori bai, beste terminologia batekin: rol bipolarrez aritzen ginen, bipolarismoaz alegia. Bizitzan dena ziklikoa dela esan ohi da. Modak, gerrak, ideologiak... denak itzultzen ei dira ziklikoki, pitin bat aldatuta bada ere.



INIGO AZKONA



Bizitzan dena ziklikoa dela esan
ohi da. Modak, gerrak, ideologiak...
denak itzultzen ei dira ziklikoki,
pitin bat aldatuta bada ere



Ondo deritzot, halere, ziklikotasunari, besteak beste, batean kontua ondo ateratzen ez bazaigu, hurrengoan, lezioa ikasita, hobeto egiteko beta izango dugulako. Argi baino argiago dago nire belaunaldikook ez ginela batere arrakastatsuak izan, mundua ez zela beltza ala zuria, kolore askotakoa baizik, aldarrikatzean. Sexualitatea ere anitza edo askotarikoa dela errepikatu dugu etengabe hiru hamarkadotan. Inor gutxi konbentzitu dugu ordea. Argi

baino argiago dago, era berean, nork bere baitan eginiko hausnarketa milaka aldiz sendoagoa izaten dela, besteengandik jasotakoa baino.

Dena den, gorago esandakoaz kontrara, bueltatu dena ez da izan binarismoa bera, beraren inguruko —aurkako— teorizazioa baizik. Izan ere, historikoki dena bitan zatitu dugu, gizabanako bakoitzari horren arabera etiketa jarri diogularik: espainolistak eta abertzaleak, batua aldekoak eta euskalkien defendatzaileak (Euskaltzaindia vs. Euskerazaintza), “demokratak” eta “biolentoak”... Ene iritziz eta desioz errotik erauzi beharko genuke sentimendu eta ideiei mugak eta etiketak ipintzeko joera, eta aniztasuna onartu.

Ea egungo gazteek lortzen duten arrakasta handiagoxea! Zail dute, alajaina! ■

TXANDAN

Castillo Suarez

Norekin bizi



Beti izan da horrela, baina egun nabarmenagoa da dirua daukanak erabakitzen duela norekin bizi. Hamaika gazte bueltatu dira gurasoen etxera handik joan eta hilabete gutxira. Batzuk ikasketengatik alde egin zuten eta besteak lanarengatik, baina krisiak, hipotekak, langabeziak... gurasoen etxera bueltarazi ditu, batik bat bikoterik ez dutenak. Familia bihurtu da gazte askoren euskarri ekonomikoa. Beste batzuk, berriz, pisua konpartitzen dute. Etxebizitza partekatzea, beraz, ez da ikasleen

kontua bakarrik. Bestetik, gero eta gehiago dira banandurik bizi diren

bikoteak bikotekide biek haien lanpostua, eta beraz, etxebizitza, mantendu nahi dutelako. LAT deitzen dituzte: *living apart together*, alegia bereiz bizi direnak baina elkarrekin daudenak. Familia hauek —batzuek seme-alabak badituzte— ez dira garai batekoak bezalakoak: ez dute bizitoki bera eta ez dute unitate ekonomikoa osatzen. Nolanahi ere, denek ez dute askatasunez erabaki aparte bizitzea. Askori ez zaie beste irtenbiderik geratu eta ezin bestean bizi dira horrela. ■